



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sanbartolomeak-2023



Bozeto lehiaketa

2023ko jai-egitaraurako bozeto lehiaketaren oinarriak

Helburua.

Lehiaketaren helburua, aurkeztutako marrazkien artean 2023ko jai-egitaraurako marrazkiak aukeratzea da. Gaia librea da. Lehiaketaren helburua zein den kontutan harturik, marrazkiek helburu horrekiko zerikusia izan beharko dute.

Esku-hartzea.

Lanak aurkeztu ahal izango dituzte Ibarren bizi edo eta ikasten duten haur eta gazte guztiek. Bi kategoria ezartzen dira: LH1-LH6 mailen bitarteko ikasleak eta DBH1-DBH2 mailetako ikasleak

Epaimahaia.

Epaimahaia Festa Batzordeak izendatzen dituen ordezkariak osatuko dute.

Aurkezpena.

Lanak elaborazio teknika librez eginik aurkeztuko dira. Marrazkien formatua A4 neurrikoa izango da eta beraren antolaketa bertikala izango da. Aurkeztutako lanek "Sanbartolomeak 2023" adierazpena eta Ibarren armarrak (edo eta beran jartzeko lekua) eduki beharko dituzte nahi eta nahi ez.

Lanak egilearen izenik edota adierazpenik ez dute izango. Bozetoa gutun-azal itxian egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, jaiotze data, ikastetxea eta kurtsoko datuak entregatuko dira.

Lanak entregatzeko epea.

Lanak ekainaren 16a baino lehen Ibarren Kultur Etxean entregatu behar dira.

Lehiaketaren epaitza.

Lehiaketaren epaitza abuztuan jakinaraziko da. Irabazleei alde aurretik abisatuko zaie.

Ibarren, 2023ko maiatzaren 5ean

Animatu zaitez!

